



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL  
COMITÉ VASCO DE FUTBOL SALA

2011/12 DENBORALDIA

## 29 ZK. DUN ZIRKULARRA

### ARETO FUTBOLEKO EUSKAL GAZTE KOPA

Areto Futboleko Euskal Batzorde honek, denboraldi honetarako Lehiaketa Planean ezarritakoaren arabera, lehiaketa hau antolatuko du, ondorengo araei jarraiki.

#### **1. PARTE HARTZEN DUTEN KLUBAK**

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Gazte maila goreneko lehiaketetan hoberen sailkatu direnak.

#### **2. LEHIAKETA SISTEMA**

Hiru Batean txapelketa motan garatuko da. Partidak 20 minututakoak izango dira bakoitza, kronometratuak. Ekainaren 2an ospatuko da Gasteizeko Mendizorroza Polikiroldegian, honako partida ordenarekin

|           |       |                                   |
|-----------|-------|-----------------------------------|
| 1 Partida | 10.30 | Alava - Gipuzkoa                  |
| 2 Partida | 11.30 | 1 Partidaren galtzailea - Bizkaia |
| 3 Partida | 12.30 | 1 Partidaren irabazlea. - Bizkaia |

Zirkular honetan aurreikusten ez den guztian Areto Futboleko indarrean dagoen arautegian xedatutakoa ezarriko da.

Partida guztiak, nahitaez baloi ofizialarekin lehiatu beharko dira, ASTORE markak areto futbolerako duen modeloarekin.

Taldeek joko aretoan aurkeztu behar dira, gutxienez, partida hasteko finkatutako ordua baino erdi ordu bat lehenago, epe honetan Taldearen ordezkariak Lizentziak aurkeztu behar dizkio epaile eta Kronoari

... / ...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL  
COMITÉ VASCO DE FUTBOL SALA

- 2 -

### 3. ARBITRAJEAK

AFAEBT-k egingo du Epailen izendapena, eta ordainagiriaren ordainketa Areto Futboleko Euskal Batzordearen kontu izango da.

Hau guztia klub lehiakideei, Lurralde Federakunde eta Areto Futboleko Arbitroen Euskal Batzordea Teknikoari jakinarazten zaie dagozkion ondoriotarako

2012 ko maiatzak 23, Bilbon



JON ANDER GAMBOA AGUIRRE  
Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL  
COMITÉ VASCO DE FUTBOL SALA

## **ARETO – FUTBOLEKO EUSKAL GAZTE KOPAREN ARAU OROKORRAK, “HIRU BATEAN” IZENENKO SISTEMAREN ARABERA.**

### **JOKALARI KOPURUA**

Talde bakoitzak 12 jokalaririk aurkeztu ahaliko ditu, gehienez, txapelketa osoan joka dezaten. Partida bat hasi ahal izateko, talde bakoitzak joko eremuan gutxienez sei jokalaririk izan beharko ditu jokatzeko eskuragarri, taldeko ordezkari batez gainera.

### **KANPORAKETAK**

Lehenengo partidaren kanporaturik jokalaririk oro ezin izango da bigarren partidarako jokalaririk zerrendan sartu, eta beste batez ordeztu beharko da.

### **BERDINKETAK**

Balizko berdinketak EFF-FVFK indarren duen Araudiaren III. Liburuko 101.4 artikuluan ezarritakoaren arabera ebatziko dira:

- a) Txapelketaren partida guztiak kontutan harturik, jasotako eta sartutako golen diferentzia handienaren arabera.
- b) Sartutako gol kopurua handienaren arabera, txapelketa osoan zehar lortutako gol kopurua kontutan harturik.
- c) Elkarren artean jolastutako partiden emaitzen arabera.

Partida bakoitza bukatutakoan, emaitza zeinahi dela ere, bost jaurtiketa egingo dira penalti-gunetik, taldeetarik batek irabazten duen arte. Emaitza hori kontutan hartuko da aldiaren sailkapen nagusian gerta daitezkeen berdinketak desegiteko azken aukera gisa.

Era berean, lehenengo partidaren berdinketarik gertatuz gero, jaurtiketa horien bidez erabakiko da zein den irabazlee, bigarren partida jokatzeko aldera.

### **BALOIAK**

Beroketa egiteko, klub bakoitzak egoki irizten dituen beste baloi eramango ditu.

**-O-O-O-O-O-O-O-O-O-**